

 <b>IBARRAKO UDALA</b> GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA	<b>Espedientea:</b>	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 <b>2023WDIZ0007</b>
	<b>Sarrera-erregistroa:</b>	003682 - 2023/11/28
	<b>Dekretu-zk:</b>	284/ 2024
	<b>Titularra:</b>	EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA
	<b>Ordezkaria:</b>	MIKEL BELAR IMAZ
	<b>Gaia:</b>	KONTSEILUA: 2024ko dirulaguntza

## 284/2024 ALKATE DEKRETUA

2023ko azaroaren 28an MIKEL BELAR IMAZ jaunak, EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA elkartearen izenean 003682 sarrera erregistro zenbakia duen idatzi bidez dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarra Udalean.

Aipatutako eskaera bidez, EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA taldeak 2024 urtean Euskararen gizarte erakundeen Kontseiluarentzako dirulaguntza eskatu dio Ibarra Udalari.

Ibarra udala bat dator EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAren lanarekin eta helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarra udalak 2024ko martxoaren 21ean onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA delako, euskararen garapen osoa izateko xedea batuta hainbat lan-eremutan diharduten askotariko elkarteek osatzen duten eta euskalgintzak inoiz izan duen bilgunerik handiena, anitzena eta garrantzitsuena eta ez dagoelako bera bezalakorik Euskal Herri osoan

Kontuan harturik, Euskara arloko dirulaguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.07 2024 diru-partida .

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Alkatetza honek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikularen, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Beteginaren art.24 artikularen eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41 artikularen arabera esleitzen zaizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

## EBAZTEN DU

**LEHENA.-** Diruz laguntzea EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA, euskararen garapen osoa izateko xedea batuta hainbat lan-eremutan diharduten askotariko elkarteek osatzen dutelako eta euskalgintzak inoiz izan duen bilgunerik handiena, anitzena eta garrantzitsuena delako eta ez dagoelako bera bezalakorik Euskal Herri osoan.


**BIGARRENA.-** Aipatu dirulaguntza 800 eurokoa izango da eta EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAri (G20620217) ordainduko zaio ES8330350092580920034446 kontu korrontean

**HIRUGARRENA.-** Aipatu kopurua 2024ko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.07 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako dirulaguntza honi aurre egiteko.

**LAUGARRENA.-** Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administratziotik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

**BOSGARRENA.-** Dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da

**SEIGARRENA.-** Egindako diru-ekarpena justifikatzeko EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAk honakoa aurkeztu beharko dute 2025eko urtarrilaren 31 baino lehen:

 <b>IBARRAKO UDALA</b> GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA	<b>Espedientea:</b>	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 <b>2023WDIZ0007</b>
	<b>Sarrera-erregistroa:</b>	003682 - 2023/11/28
	<b>Dekretu-zk:</b>	284/ 2024
	<b>Titularra:</b>	EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA
	<b>Ordezkarria:</b>	MIKEL BELAR IMAZ
	<b>Gaia:</b>	KONTSEILUA: 2024ko dirulaguntza

a. Jardueraren memoria, dirulaguntza jaso duen ekintzarena.

b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

**ZAZPIGARRENA.-** Dirulaguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

**ZORTZIGARRENA.-** Aipatu akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio (E).

**BEDERATZIGARRENA.-** Aipatutako akordioaren berri udalbatzari emango zaio egiten duen lehen bilkuran.

Ibarra, 2024ko maiatzaren 13an

Igor Zapirain Lizarribar

Alkatea



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023WDIZ0007-Dekretua/Decreto ()